

Hika tratamenduaren balore sozio-afektiboak

JABIER ALBERDI LARIZGOITIA*

1. Tratamenduen erabilera sartaldeko zenbait hizkuntzatan: bilakabidea eta aurrikuspenak XX. Menderako

1960an R. Brown eta A. Gilman ikerlari amerikarrek (Brown and Gilman, 1960) oso teoria interesgarria sortu zuten tratamenduen erabilera eta soziolinguistika edozein hizkuntzatan aztertu ahal izateko. Funtsean haien ikerkuntzaren helburua honakoa zen: izenordain-hautaketaren eta hiztun/solaskide harreman objetiboaren artean dagoen kobariazioa argitzeko gai den eredu teoriko bat sortzea.

Horretarako gehienbat sartaldeko indoeuropar hizkuntza ezagunetariko batzuk hartu zituzten ikergai: ingelesa, frantsesa, italiara, espainiera eta alemana. Bost hizkuntzok eremu geolinguistiko beretsukoak dira eta kidesasun handiak dituzte. Europako mendebaldeko bost hizkuntza hauek tratamendu-sistema bikoitza dute solaskide bakar bati mintzatzeko. Hona hemen, bikoiztasuna nola gauzatzen den hizkuntzaz hizkuntza (ikus Alberdi, 1986b: 419-422): italieraz *TU/LEÍ* (*VOI* zaharkituaren ordezkari gaur *LEI* nagusitu da); frantsesez *TU/VOUS*; espainieraz *TU/USTED* (*VOS* zaharrari *USTED* nagusitu zitzaion); alemanez *DU/SIE* (*ih* —2. pertsona plurala— > *ER-SIE* —3. pertsona maskulino eta femeninoa, hurrenez hurren— > *SIE*); ingelesez *THOU* /*YOU* (*ye* > *YOU*).

Gramatikalari eta historialariak ez datoz bat tratamendu-bikoiztasun horren arrazoi historikoak bilatzerakoan. Jakina denez, latinez tratamendu bakarra zegoen solaskide bati hitz egiteko, baina IV. mendean plurala (*VOS*)

* UPV-EHUko irakaslea.

1. Gaur egun galdua edo genero jakin batzuetara mugatua: erlijiozko literaturan. Hau dela eta, Brown-ek eta Gilman-ek ingelesezko izen tipia beste hizkuntzetako *T*-rekin parekatzen dute eta deiturazko trataera *V*-rekin (Brown and Ford, 1961). Aurrerantzean zentzu horretan interpretatu behar dira ingelesezko erreferentzia guztiak.

hasi omen ziren erabiltzen enperadoreari zuzentzeko. Artean bi enperadore zeuden: bata, ekialdeko inperioko burua, Konstantinoplan; eta bestea, mendebaldeko inperioko burua, Erroman. Dioclecianoren erreformaz geroztiz inperioren kudeaketa bi bururen esku geratu bazen ere, administrazioz bakarra zen inperioa. Hortaz, batari zuzendutako hitzek, nahitaez, hedaduraz besteari ere zuzenduak egon behar zuten. Alegia, mezuak bi buruei zuzenduak bailiran taiutzen eta eratzen ziren. Beraz, lehen hipotesi honen arabera (Byrne, 1936), VOS tratamendu berria bitasun edo pluraltasun historikoaren ondorio izango zatekeen. Bigarren hipotesi batek dioenaren arabera (Châtelain, 1880), esan daiteke berez enperadoreari pluraltasuna egoki datorkiola, bere mendeko herritarren batuketaren emaitza edo sinboloa den aldetik. Erregezkoek sarritan *GU* esaten zuten, herri xeheak *NI* esango zutekeen testuinguruan eta sarritan Erromako enperadoreak bere buruaz ari zela *NOS* erabiltzen zuen eta zentzu honetan errespetuzko *VOS* aurreko erabilera maiestatikoaren erantzun edo ordain logikoa zatekeen. Bigarren hipotesi honen arabera, tratamendu berria (*VOS* errespetuzkoa) ez legoke pluraltasun historikoari atxikitu beharrik, pluraltasuna nonnahi boterearen edo aginpidearen metafora zaharra baita ².


Nolanahi ere den, sortzez soilik enperadoreari zegokion latinezko *VOS* errespetuzkoa, gerora, bestelako goi-mailako agintarien artean ere hedatzen hasiko zatekeen harik eta gizartearen botere-gune guztietara (familiara barne) zabaldu arte. Enperadore, erregezko eta, oro har, goi-mailakoei *VOS* zegokien bitartean, behe-mailakoei *TU* tratamendua ematen zitzairen. Aurretik, gauzak erraztearen, hizkuntza anitzetan bereizten diren izenordainen bidezko bi erregistro edo tratamenduak izendatzeko *T* eta *V* laburdurak erabiliko ditugu. Lehenengoa, *T*, lagunarteko erregistroa adierazteko eta bigarrena, *V*, kortesiazkoa edo errespetuzkoa adierazteko ³.

Gorago aipatu autoreen aburuz (Brown and Gilman, 1960), badira oinarritzko bi printzipio edo indar, gizarte-bizitzako jokabideak arautzen dituztenak. Honako hauek dira: boterea eta elkartasuna. Esan daiteke pertsona batek botere edo aginpidea duela beste baten gain, beste lagun horren jokaera zuzentzeko edo kontrolatzeko gai den neurrian. Boterea era askotako arrazoietan egon liteke oinarrituta: indar fisikoa, osasunean, adinean, sexuan, erakunde-mailako paper edo eginkizunetan. Boterea, gutxienez bi pertsonaren artean gertatzen den erlazioa da. Bi pertsonak ezin dute aldi berean eta jokaera-eremu berean boterea eduki eta horregatik diote Brownek eta Gilmanek “asimetrikoa” edo “ezreziprokua”, “ezelkarrekikoa” dela botereak ezartzen duen erlazioa. Lehen indar edo ardatz honi, autoreek “boterearen semantika” deritzotena legokiok. Ondo-koak izan litezke Erdi Aroko Europako boterezko harremanaren adibideak: enperadorea/enperadorearen agindupekoak, erregea/erregearen agindupekoak, Aita Saindua/gainontzeko elizkideak, nobleak edo aitonen seme-alabak/herri xehea, etxeko jabea/ezkutari-morro-isklaba, gurasoak/seme-alabak, e.a.

2. Gu geu, hizkuntz tipologiazko arrazoiengatik bigarren hipotesi honen alde makurtzen gara. Nolanahi ere, lehenbiziko hipotesiak gogorazten digun errealitate historikoa, bikoiztasun historikoa alegia, eragingarria izango zen burututako aldaketa bultzatzeko.

3. Horrekin ez dugu esan nahi hizkuntza desberdinetako *T* guztiak (edo *V* guztiak) pragmatikoki eta sozialki erabat baliokideak direnik. Ikus beherago, 20. oharra.


Brownen ikerkuntzaren arabera, Erdi Arotik aurrera mendeetan zehar “boterearen semantika” izan zen nagusi aipatu bost hizkuntzetan: berdinen artean tratamendu simetrikoa zen ohizkoa (V - V goi-klaseetako berdinen artean; T - T behe-klaseetako berdinen artean) eta desberdinen artean T - V asimetrikoa (azpikoak goragokoari V esan eta berarengandik T jaso). Hortaz, aro honetan boterea (botere-erlazioa) zen tratamenduen erabilera baldintzatzen zuen arau nagusia, ia-ia arau bakarra. Hona hemen irudi batez zertan zen boterearen semantika:



1 Irudia: boterearen semantika


Semantika edo araubide honek ondo funtziona zezakeen gizarte erabat hierarkizatu batean, gizaki bakoitzak jaiotzez ezarritako toki jakin eta aldagaitza zuen garaian, baina sistema hau laster hasi zen koloka. Izan ere, apurka-apurka berdinen artean ere bereizkuntza egin beharra sentitu zen eta honekin batera urratuta geratu zen lehengo sistemaren oreka garbia. Bereizkuntza zentzu honetan mamitu zen maila berekoen artean: T lagun hurbilari, hurkoari eta V lagun ez hain hurkoari. Hots, hurkotasunezko T eta formaltasunezko V gisan gauzatu zen berdinen arteko bereizkuntza. Hemen, beraz, Brown eta Gilmanek “elkartasunaren ardatza” deritzotena sartu zen jokoan. Boterearena erlazio asimetrikoa baldin bada, “elkartasunari” dagokiona simetrikoa da. Horrela, pentsakera-kidetasuna edo gogai-detasuna sortzeko balio duten neurrian, era askotako kidetasun edo antzekotasunak izan daitezke “elkartasun-eragile” edo “elkartasun-sortzaile”, hala nola, kidetasun politikoa, familiazkoa, erlijiozkoa, lanbidezkoa, sexuzkoa edo jaioterrizkoa.

Aipatutako Europako bost hizkuntzetan *elkartasuna* izan zen berdinen arteko tratamenduan bereizkuntza egiteko modua. Honek guzti honek korapilatu egin zuen lehengo sistema semantikoa botere berdinekoen mailan ardatz edo aldagai berri bat sartuz. Beheko irudian ikus daitekeenez, elkartasunaren eragina maila berdinekoen mailara mugatuta egon zen bitartean, sistemak orekan iraun zuen.



2 Irudia: sistema semantikoa orekan

Benetako korapiloa eta desoreka, *elkartasuna* botere desberdinekoen mailara hedatzen hasi zenean sortu zen. Hona hemen, gatazka era abstraktuan aurkeztuta. Hirugarren irudian letra beltzez azpimarkaturiko laukietan kontraesana sortzen da botereak eta elkartasunak agintzen dutenaren artean: irudiaren ezkerraldeko goiko laukian agertzen denez, boterearen arabera goragokoari *V* zor zaio, baina goragoko hori solidarioa baldin bada, elkartasunaren arabera *T* eman behar; irudiaren eskuinaldeko beheko laukian ikus daitekeenez, beheragokoari boterearen arabera *T* zen legea, baina solidarioa ez denez, elkartasunak —elkartasun-ezak kasu honetan— *V* agintzen du.



3 Irudia: sistema semantikoa gatazkan

Hona hemen gatazka bera baina binako konkretuen bidez azalduta:

Goragoko solidarioak

<i>Aita-ama</i> T ↓ ↑ T/V Seme-alaba	<i>Ugazaba</i> T ↓ ↑ T/V Morroi leiala	<i>Anaia nagusia</i> T ↓ ↑ T/V Anaia gazteagoa
---	---	---

Beheragoko ez-solidarioak

<i>Bezeroa</i>	<i>Ofiziala</i>	<i>Enplegu-emailea</i>
↓/N V ↑	↓/N V ↑	↓/N V ↑
Zerbitzaria	Soldadua	Enplegatua

3A Irudia: sistema semantikoaren bikano gatazkatsuak*Goragoko solidarioak*

<i>Aita-ama</i>	<i>Ugazaba</i>	<i>Anaia nagusia</i>
↑	↑	↑
T	T	T
↓	↓	↓
Seme-alaba	Morroi leiala	Anaia gazteagoa

Beheragoko ez-solidarioak



<i>Bezeroa</i>	<i>Ofiziala</i>	<i>Enplegu-emailea</i>
↑	↑	↑
V	V	V
↓	↓	↓
Zerbitzaria	Soldadua	Enplegatua

3B Irudia: XIX. Mendeko Joera edo soluziobidea

XIX. mendean boterearen semantika zen nagusi eta horren arabera, alde batetik, zerbitzariak, soldadu arruntek eta enplegatuek *T* jasotzen zuten; beste alde batetik, gurasoeekin, ugazabekin eta anaia nagusiekin *V* zen eraberritzailea. Hala ere, informazio askoren arabera badirudi XX. mendean *elkartasunaren semantika* nagusitu zaiola boterearenari. Gaur egun, 3a irudiko bina-koen tankerakoetan, bietatik bat, edo *T* elkartasunezko izenordain simetrikoko edo elkarrekikoa gailentzen da, edo bestela, elkarrekikoa *V*, elkartasun ezaren izenordaina nagusitzen da. Soluziobide honen ondorio abstraktua ardatz

bakarreko sistema bakuna da: *T* elkarrekikoa elkartasunezko harremanetarako eta *V* elkarrekikoa elkartasunik gabeko harremanetarako.

Gaur egungo erabileran, botere-desberdintasunak elkartasun ezaren ezau-garriztat hartzen dira, horrelakoetan elkarrekiko *V* nagusitzen delarik⁴. Ondoko irudian binakoen gatazka gainditzeko soluziobidea ikus dezakegu:



3C Irudia: gatazkaren soluziobidea XX. Mendean

Hitz laburrez, bi dira ikerkuntza honek dakartzan diakroniazko ondorioak (tesi-hipotesiak): 1) XX. mendean aipatu bost hizkuntzetan (frantsesa, italiera, alemana, espainiera, ingelesa) lehenagoko *boterearen semantikari elkartasunaren semantika* nagusitu bide zaio edo erabat nagusitzeko bidean dago; 2) elkartasunaren semantikaren barruan gaudelarik, gero eta joera garbiagoa ageri da elkarrekiko *T*-ren alde, urruntasunezko edo formaltasunezko *V* elkarrekikoaren kaltetan. Hau da, gero eta handiagoa da *T* elkarrekikoa eragiteko moduko binakoen kopurua gizarteko harremanetan.

Beraz, lehenbiziko aldakuntza semantikoak ardatz baten (boterearen) zokoratzea ekarri baldin badu, bigarrenak —orain gauzatzen ari omen denak—, sistema bakuntzearen alde jokutzen du, lagunarteko erregistroa (*T*) gero eta esparru zabalagoak beraganatzen ari delarik. Bigarren urrats hau beteko balitz, ziklo historikoaren abiapuntura itzuliko ginateke (*T*---> *T/V* ---> *T*) eta agian horrekin batera bereizketa edo bikoiztasun berrien beharra (*T/V*) sentituko ere.

4. Hala ere, ohartarazi beharra dago soluziobide hau ez dela orokor eta unibertsala, ezta aipaturiko hizkuntzetan ere. Beraz, hizkuntza-kontuetan ia-ia beti gertatu ohi den bezala, erregela edo lege gisa barik, joera-gisa aurkeztu behar da delako bilakabidea. Boterearen azarnak —indar edo pisu espezifiko handiagoz edo txikiagoz— hizkuntza gehienetan agertzen dira. Eta irudiko sei bikoteetatik, badirudi “enplegu-emailea/enplegatua” dela botere-zamarik handiena atxikitzen duena.

Dena den, atal hau bukatu baino lehen, esan dezagun boterearen ardatzaren ezabatzeak ekarri duen aldakuntza, ororen gainetik linguistikoa —kode mailakoa— dela, neurri handi batean gizartearen beraren aldakuntzan eta bilakabidean sustraituta badago ere. Esan nahi baita, hizkuntz usarioen aldaketak gorabehera, oraindik ere boterezko harreman asimetrikoek zutik irauten dutela, izenordainen edota tratamenduen bidez boteresberdintasunak kodetzeko joera “gaizki ikusia” -edo ez hain ongi ikusia- gon arren ⁵.

2. Hiketa/zuketa: Euskal tratamendu-usarioen iragana eta geroa

Aurkeztu ditugun diakroniazko hipotesiak eta bilakabidezko eredu teorikoa euskararentzat onartuz gero ⁶, berehala sortzen zaigun galdera bikoitza hizkuntzaren bilakabide historiko berriari buruzkoa da: 1) XIX-XX. mendeetako euskararen eboluzioan boteretik elkartasuneranzko joera atzeman daiteke? Baiezkoan, zenbateraino burutu da aldakuntza hori? 2) XX. mendearako inguruko zenbait erdaratan iragarritako elkarrekiko *T*-ranzko joera garbia somatzen ote dugu gaur egungo euskaran?

Lehenbiziko galderaren hariari helduz, aski bidezkoa dirudi 2. irudian erakutsitakoaren antzeko eredu bat proposatzea aurreko mendeetako euskararentzat. Hau hala izatera, ondorengo urratsa elkartasunaren eta boterearen arteko gatazka izango zatekeen (ikus bitez gorago 3 eta 3A irudiak). Hots, alde batetik, maila apalekoari nagusi solidarioarekiko sortzen zaion zalantza (*V*, nagusi den aldetik; *T*, harremana elkartasunezkoa den neurrian); beste alde batetik, nagusiagoari maila apalagoko ez-solidarioarekiko sortzen zaion duda-muda (*T*, azpikoa duen aldetik; *V*, ez-solidarioak diren aldetik). Aldameneko hizkuntzetan joera, esan bezala, lehenengo kasuan *T* (goragoko solidarioari) eta bigarrenean *V* (menpeko ez-solidarioari) nagusitzekoa izan da (ikusi gorago 3C irudia).

3B irudiko beheko binakoak (bezeroa/zerbitzaria, ofiziala/soldadua, enpleguemaileak/enplegatua) kontutan hartzen baditugu, ematen du antzera gertatu dela euskaraz, nagusitzazko harremanetan elkarrekiko *V* gailenduz.

Hala eta guztiz, goragoko solidarioekin (gurasoak/semi-alabak, ugazaba/morroi leiala, anaia nagusia/anaia gazteagoa) ez dirudi *T*-ren aldeko bilakaera hain aurreratua dagoenik. Gure uste apalean, aipatu kasuetan elkarrekiko *T* nagusitzetik aski urrun geundeke. Hasteko, familiaren esparruan oro har —ez bakarrik gurasoak/semi-alabak kasuan—, adinaren aldetiko desberdintasunak izanez gero, *T-V* gisako harreman asimetrikoak suertatzen dira

5. Hemen bada azalean geratzeko arrisku handia. Eta badira axaleko ikuspegi kamuts horrek itsututa, iraultza teilatutik hasi nahiko luketenak. Hizkuntza bat, pentsakera eta gizartekera jakin batzuen adierazbidea izan daiteke —eta besteak beste, hori ere bada—, baina azala itxuraldatu arren mamia aldatzen ez bada ezer gutxi aurreratutako dugu. Ez diezagula hizkuntzak —George Orwell-en harako 1984 eleberriko mundu izugarri hartan bezala— errealitatea ikustea galeraz.

6. Brownen hipotesi diakronikoak euskarari buruz egiaztatzea edo gezurtatzea ez da bat ere eginkizun erreza, batetik, idatzizko lekukotasunen berankortasunagatik, bestetik, haien urritasunagatik. Dokumentu zahar idatziek ez digute erakusten bere osotasunean hizkuntzaren gizarte-bizitza eta are gutxiago izenordainen bidezko tratamenduen eremu sozial murrizt edo zabalagoa.

maiz. Bigarrenik, mende honen hasieran, artean morroiak eta baziren, eta zaharren esanetan *T-V* ohitzen omen zuten ugazabek halako mutilekin. Bestalde, gaur egungo nagusi-enplegatu harremanari so eginez gero, elkartasuna egonda ere, ez du ematen *T-T* aukerak nagusitasun guztiz garbi eta erabatekoa erdiesten duenik: elkartasuna gorabehera, euskaldunarentzat nagusiak nagusi izaten jarraitzen bide du maiz. Hirugarren bikoteari dagokionez (anaia nagusia/anaia gazteagoa), tratamendu asimetrikoa maiz ikusten da oraindik ere adinekoen artean, ez hainbeste gazteen artean. Are gehiago, familiarik kanpo ere, oso adin desberdineko adiskideen artean (demagun 50 eta 70-75 urteko betiko auzo-lagunen artean) ez da bat ere gauza harrigarria asimetria gertatzea. Aipatutakoez gain, Euskal Herriko leku anitzetan sexu-diferentziak eragiten dituen tratamenduzko asimetriak hartu behar dira kontutan (neskak mutilari *T*, baina mutitak neskari *V*).

Ondorio gisa, zera aurrera genezake: orotara, aldameneko hizkuntzetan baino dexente asimetria gehiago gertatzen bide dira euskaraz; hortaz, Brown eta Gilman-ek *elkartasuna* deritzoten ardatzaren hedakuntza hurbileko hizkuntzetan baino astiroago, motelago eta atzeratuago dator euskaraz, *elkartasunaren* zabalkundea ez da heldu bere azken gradura, ezta hurrik eman ere. Alderantziz, Brownen esapide eta ereduaz baliatuz esan dezakegu *boterearen semantikaren* aztarna gordinak atxikitzen dituela euskarak.

Bigarren auziari buruz, zoritxarrez ezezko erantzuna eman beharrean aurkitzen garela deritzogu. Salbuespenak salbuespen⁷, gaur egungo euskararen, zoritxarrez, ez dugu somatzen elkarrekiko *T* orokortzeko joerarik eta are gutxiago *T*-ren aldeko ordezkatzeko-prozesurik. Beldur izatekoa da⁸ alderantzizko ordezkatzeko ez ote datorkigun gainera: bata bestea menderatzeko-tan, gure artean, tamalez, zukak (eztabadak) ahaztaraziko liguke hikako tratamendua eta ez alderantziz. Faktore askok jokatzeko dute bakuntze horren alde, hitanoaren galeraren alde, alegia:

a) Gaur egungo euskararen osasun makala. Izan ere, hitanoaren bizitza eta euskararena estuki loturik daude zentzu honetan: oro har —salbuespenak salbuespen-, zenbat eta euskarak biziago eta bakartuago iraun herri batean, hitanoak ere hainbat eta probabilitate handiagoa izango du delako herrian bizirik eta osasuntsu irauteko.

b) Hikako tratamenduan alokutibotasunari zor zaion morfologiazko oparotasuna. Alokutibotasunarena, euskararen aberastasun eta berezitasun morfologiko azpimarkagarria da eta Txillardegik (1977) dioenez, berez, izatez

7. Hitanoak eta euskarak bizitza eta osasun ezin hobeak dituzteneko paraje batzuetan, hikako tratamenduak zukakoari eremua jan edo irabazi diolako irudipena dute zaharrek eta baliteke hala izatea eskualde horietan.

8. Zenbaiten ustetan ordezkatzeko hori galera deitoragarria barik, aldakuntza opagarri eta desiragarria bada ere (Gereño, 1991). Hona hemen beraren hitzak, ekonomiaren printzipioaren aitzakiaz hizkuntzaren bilakabide berezkoa bizkortu eta areagotu nahi lukeen jarreraren erakusgarri: *Hitanoa baztertzea proposatzen dut. (...) Ez dut esan nahi izan euskaldun herrietako hizkuntza kolokialean hitanoa baztertu behar dugunik. Ez, aipaturiko esaldia idatzi dudanean ETB nuen gogoan bereziki. Zergatik erabili behar da hainbeste hitanoa filmetan? Euskal Herriko leku askotan hitanoa ez da erabiltzen, ikastola gebienetan ere hori bera gertatzen da, eta euskaldun berriek, jeneralean ez dute hori ikasten. Bigarren pertsonarako konjugazio bat baino gehiago erabiltzea luxu bat da. Lehen hiru forma ezberdin ziren, gero bira jaitsi genituen, eta orain bat bakarrean goaz. Hori ez da euskararekin bakarrik gertatzen. Ingeles hizkuntzan "zuka" nagusitu da, gaztelaniaz "zuka" desagertzera doa. Dirudienez euskarak ingelesaren bidea hartuko du.*

inongo zailtasunik ez dakarren arren, hizkuntzak bizi duen egoera larriagatik, zama astun eta erabilgaitz bihurtzen da erregistro bakarreko euskaldunen begietan. Zentzu horretan alokutibotasunak eta morfologiazko oparotasunak mendebaldeko hizkuntzetan ageri den *T*-ranzko joeraren aurka jotzen dute.

c) Hikako tratamenduari —batek ez daki ongi noiztik, zergatik eta noren eraginez⁹— halako omen edo ospe txarra eta laidozko kutsua itsatsi dizkiote Euskal Herriko toki askotan, halako moldez ezen anitz euskaldunentzat tabu gisako zerbait bihurtu baita. “Orbain” edo “bekatu” hau, ez da jatorrizkoa, noski, Azkuez geroztik frogatutzat ematen baita *zu* izenordainaren pluraltasun “berria”. Euskarazko lehen lekukotasun idatzi garrantzitsuak ospe txar horren aurka mintzo zaizkigu: Detxepare, Leizarraga, Etxeberri Ziburu-koak eta beste hainbatek ez zuten bat ere lotsarik izan hitanoa erabiltzeko.

d) Hau dela eta, euskaldun askoren gusturako hitanoak konnotazio txarrak ditu: ijitoen edo buhameen mintzaira, basokoen edo baserritarren hizkera, hizkuntza zakar, gordin, gogorra eta abar luzea. Gauzak horrela, gurasoengandik semealabenganako hitanoaren transmisioa berariaz moztu izan dute familia askotan, itsusia delakoan, motza delakoan eta antzerako aurre-iritzien indarpean, nahiz eta gero etxetik kanpo hika egiteari erabat ez utzi.

e) Euskal Literaturaren tradizioan antzerkia gutxitxo landu da berriki arte; erregistro jasoak landu izan dira gehien. Hori dela eta, lagunarteko mintzamoldeari dagokion hitanoa bezalako tratamendu batek ez du izan behar adinako ispilurik gure literatur tradizioan.

f) Gaur egun, irakaskintzak (eskolak, ikastolak, euskaltegiak, institutuak, unibertsitateak...) oro har ez du gehiegi laguntzen hitanoaren galerazko ibilbidearen aurka, sarri-askotan hitanoaren bizitzarena baino beharrian larriagoak daude eta.

g) Komunikabideei gagozkiela, ETBrena ahalegin txalogarria izan daiteke, gainontzeko komunikabideetan jarraitzeko modukoa. Hala ere, telebistak, irratiak eta prentsa idatziak, zeinek bere mugak ditu hitanoa hedatzeko ahaleginean¹⁰: kontutan har bedi euren diskurtsoa neurri handi batean ezta-

9. Euskalaritzaren historian barrena gramatikalarik desberdinek gai honetaz agertu izan dituzten argibide, iritzi eta aurre-iritzietarako (Alberdi, 1986a) ikus lezake irakurleak.

10. Euskaldunon Egunkariaren Estilo Liburuan ikus daitekeenez (60.orr.), trataerak ez du aparteko garrantzirik informazioaren ikuspegitik. Hona hemen, bada, gai honen inguruko irizpideak elkarrizketetarako: 138. Hizketatuaren eta kazetariaren arteko adiskidetasun edo konfidantza mailak ez dauka interes informatiborik. Beraz, elkarrizketak zuka idatziko dira, edonola eginda ere.

Hizketatuak hika jarduten duenean ere, zuka transkribituko da. Hika aritzeak informaziozirik aportatzen duen kasuetan, sarreran aipatuko da hitanoa erabili zuela hizketatuak, besterik gabe.

Kazetariak gain, hizketatuak bat baino gehiago direnean, haien arteko hitanoa errespetatu egingo da.

Egunkariak egin ez dituen elkarrizketen transkripzioetan, hitanoa bere horretan utziko da. Adibidez, irratiko hemerrotekan, edota informazio baten barruan bi pertsonaren arteko elkarrizketa transkribitzen denean.

Hitanoa baimendutako kasuetan, elkarrizketa erdaratik itzulia delarik, honako arauak erabiliko dira: espainolezko —usted', —tú' eta frantsesezko —vous', zuka transkribituko dira; frantsesezko —tu', aldiz, hika.

badaka (erregistro neutroan) gauzatu beharra dutela, inongo solaskideri zuzentzen ez zaizkion heinean bederen.

h) Aditz alokutiboaren batasuna gaur-gaurkoz eginkizun dugu. Hortaz, irakaskuntzatik nahiz komunikabideetatik hitanoaren aldeko apostua egiterakoan, makina bat zalantza sortzen da.

3. Hitanoaren erabilera baldintzatzen duten oinarrizko aldagai soziolinguistikoak

Izenordain-usarioei buruzko ikerketetan, hautaturiko tratamenduaren eta hiztun/solaskide harreman objetiboaren artean dagokeen kobariazioa ikertu ohi da. Hau da, honelako ikerketek une eta toki jakin batean, pertsona jakin batekin tratamendu jakin bat aukeratzeko arrazoiak zein izan daitezkeen argitzea dute helburu. Aurrerantzean erregistro bat —eta ez beste— hautatzera bultzatzen gaituzten arrazoi eragile hauek *aldagai soziolinguistikoak* deituko ditugu.

Aurreko atalean aipatutako bi faktore eragileak, *boterea* eta *elkartasuna*, *makroaldagaiak* lirateke nolabait esateko. Hots, aldagai orokorregiak lirateke hizkuntza partikular baten ikerketan aplikatzeko. Hemen hitanoaren erabilera argitzea interesatzen zaigunez gero, aldagai xeheagoak, konkretuagoak bilatu beharrean aurkitzen gara. Errusieraz (Friedrich, 1966), esaterako, ba omen daude kontutan hartu beharreko hamar aldagai tratamenduen erabilerearen berri emateko:

- 1) Gaia (hizketa-gaia).
- 2) Hizketaldiaren testuingurua.
- 3) Adina.
- 4) Belaunaldia.
- 5) Sexua.
- 6) Senidetasun-maila.
- 7) Dialektoa.
- 8) Talde-kidetasuna.
- 9) Aginpidea (legal edo politikoa), eskubide eta betebeharren gaineko aginpidea.
- 10) Sentipenezko elkartasuna, elkartasun psikologikoa (hau da, sinpatia, antipatia, begikotasuna, elkar-ezinikusia, e.a.).

Pixka bat pentsatzen hasiz gero, esan genezake gehitxoago edo gutxitxoago aldagaiok guztiok -eta baten bat gehiago ere bai, agian- direla kontutan hartzekoak, hitanoa erabiltzera eragin dezaketen neurrian. Ikus ditzagun banan banan.

Ez du ematen euskaraz gaia berez eragile garrantzitsuenetakoa izan daitekeenik. Nolanahi ere, zenbait euskaldunentzat berau —testuingurutik nekez bereiz daitekeelarik— izan liteke irizpideetariko bat hikatik zukara pasatzeko eta alderantziz. Banaka batzuek hitanoa txantxetarako erabiltzen duten bitartean, gai serio eta astunak erabiltzerakoan zuka (eztabadaka) erregistrora jotzen dute. Eta hemen gai serioak —testuinguru edo egoerarekin uztarturik— honakoak dira: tratuak (baserritarren artekoak), negozioak, bilera batean tratatzeko moduko gaiak, bankuko kontuak, e.a.

TESTUINGURUak, dudarik gabe, askoz ere garrantzi handiagoa du. Hasteko, alde batetik, badirudi hitanoa jai- edo festa-giroan inon eta inoiz baino aproposagoa dela. Dena delakoagatik (bere sexuagatik, ohiturazko debekuren bategatik...) hitanoa bakan erabiltzen duen euskaldunak, esaterako, hautsi egingo luke bere ohitura adarra jotzeko, brometan, jostetan, "alukerian" eta gisako egoera markatueta. Beste alde batetik, saminezko testuinguru batean, esate baterako, lagun minari doluminak emateko unean edo, aurka-ko jarrerak agertzen zaizkigu aurrez-aurre: euskaldun askok tratamendua aldatuko ez lukeen bitartean ¹¹, beste batzuek ohituraren aurka zukara (eztabadaka) joko lukete halako egoera goibel batean. Ez da berdin ezezagun batekin kalean edo mendian (edo tabernan) topo egitea; mendian (eta tabernan), agian beste inon baino aiseago lerratuko litzateke euskalduna hika egitera. Testuinguruarekin jarraituz, ez da berdin bakar samar egotea edo jende aurrean egotea: badira batzuk (emakumeak, batez ere) bakarka beren lagun onarekin hika aritzen direnak eta taldean hika egiteko uzkur direnak. Ildo beretik, jende aurrean ere, ez da berdin lagun artean hitz egitea edo jende arrotzaren aurrean. Beraz, testuingurua ez da tokia edo unea bakarrik: zein kategoriatako solaskideen eta zenbat solaskideren aurrean burutzen den, norabide desberdinak hartuko ditu hizketak. Bestalde, unea eta tokia ez dira espaziozko eta denborazko erreferentzia hutsak; ezin ditugu tokiaren eta unearen konnotazioak eta "zertarakoa" ahaztu eta horregatik testuingurua askotariko aldagaien batasunaren zentzuan ulertu beharra dago.

Aurreko bi aldagaiak bigarren mailakoak badira ere, ADINA funtsezko aldagaia dugu hitanoaren erabilera argitzeko. Ez dezagun ahaz *adiskide* hitzaren etimologia: **adinez-kide* ¹²; etimologia horren argitan, pentsa liteke euskaldunarentzat "adin-kidetasuna" aski dela edo izan dela adiskidetasuna sortzeko. Horra hor, etimologiak agerian jartzen duen metafora garbia, adinak euskal gogoarentzat betetzen duen paper garrantzitsua erakusten duen hitz-elkarketa. Hitanoaren erabilera, inolako dudarik gabe, etimologia hori sendotzera dator: hitanoa "adiskideen arteko" kontua dela egia bada ere, esan beharra dago adiskidetasun hori —arretaz begiratzuz gero— (adin...) kidetasunaren zentzu zabalagoan ulertu behar dugula. Bistan da euskalduna bere adinkideari aiseago zuzenduko zaiola hika, bera baino askoz zaharra-goari baino. Esan ohi den bezala, "adina gradu bat da" eta tratamenduen erabilerari gagozkiola, hori lege da euskaraz.

Beste alde batetik, adinarekin batean BELAUNALDIaren aldagaia dugu. Hemen arau sendo eta egonkorrik ez bada ere, adin desberdinetako adiskideen artean gerta daitezkeen gorabeherak ulertzeko adina ezezik, belaunaldia ere kontutan hartu behar dela deritzogu. Euskaldun batzuk lauzpabost urteren gorabeheran hika aritzen dira; beste batzuek, ordea, belaunaldia edo hartzen bide dute irizpidetzat eta urteen aldea nabarmena bada, zukara jotzen dute adinekoari errespetua erakustearren: auzoko lagun-adiskide biren arteko adinaren aldea oso nabarmena (demagun, hogeitaz urteren aldea) bada, orduan probabilitate handia dago tratamendu simetrikoa blokeatuta

11. Euskaldun asko holako testuinguruetan, hika arrazoi gehiagorik mintzatuko lirateke, sentimendua erakusteko unean hitanoak hurbiltasuna adieraziko lukeelako eta zukak, ordea, halako hoztasuna edo.

12. Mitxelenak (Michelena, 1976: 122) onartu bide zuen Lafonen azalpenaren arabera (RIEV, 26, 651 eta hurr. eta RIEV, 27, 62 eta hurr.).

geratzeko eta litekeena da asimetriak sortzea. Horrelakoetan, azpian belau-naldia dugula ematen du. Itxura batean, hemen, 10-15 urteren aldea izan liteke batez besteko esparrua elkarrekiko hitanoa (simetrikoa) gauzatu ahal izateko.

SEXUA, adinarekin batera, aldagai oinarritzkoa da. Beti ere, errazago gertatuko da simetria sexu berekoen artean, sexu desberdinekoen artean baino. Gainera, oro har, sexu berekoak izanda, gehiago egiten da hika gizonen artean, emakumeen artean baino. Asimetria gertatuz gero, aiseago gertatzen da emakumearen alde (hots, emakumeak hika gizonari eta beronek zuka itzuli emakumeari). Euskal Herriko herri askotan (uste baino gutxiagotan!) (adibidez, Aulestia eta Azpeitia) sexu-diferentzia hika aritzeko eragozpena ez bada ere, hainbat herritan —eta ez Bizkaieraren eremukoetan bakarrik— benetako “tabuak(?)” daude gai honen inguruan. Eta hemen kasuistika desberdinak suertatzen dira:

— Zenbait herritan (Baigorri, esate baterako) ohituraren aurka doa gizonezko batek emakumezko bati hika hitz egitea; emakumeek, “askatasuna” dutelarik gizonezkoei hala mintzatzeko eta orobat beren artean.

— Beste herri batzuetan (Uztaritze, Hazparne, Larrañe) galduta dago emakumezkoei hika hitz egiteko ohitura eta erdi-galduta emakumeak beren artean hika aritzekoa, hala ere zilegi da emakumezkoek gizonezkoei hika egitea.

— Beste herri batzuetan, azkenik, (Etxalar, Larrabetzu) hika gehienbat gizonen artean egiten da: ez gizonezkoek emakumezkoei, ez emakumezkoek gizonezkoei eta ezta emakumezkoen artean ere (zahar-zaharren batzuk kenduta).

SENIDETASUN-MAILA ere gogoan hartzeko beste aldagai bat da. Esate baterako, logikoa denez, normalagoa da hitanoa anai adinkideen artean, lehengusu adinkideen artean baino. Berebat, maizago gertatzen da aita batek bere semeari *to* esatea, aitona batek bere bilobari *to* esatea baino. Eta zer esanik ez, ezkontza-bidezko harremanetara igaroz gero: probalitate aldetik maizago gertatuko da ama batek bere semeari *to* esatea, bere seme politikoa-ri (suhari) *to* esatea baino.

Dialektoa, euskalkia, azpieuskalkia eta hizkera ¹³ ere izan daitezke garrantzitsuak. Hiztunaren joera maiz solaskidearen mintzamolde eta ohituretara egokitzekoa izaten da. Hitanoaren kontuan agian ez dago hain garbi, baina Arberoko edo Garaziko euskaldunek joera garbia dute xukarik ez duten euskaldunekin, haiek bezala mintzatzeko. Hala ere, hitanoaren erabileraz ari garela, euskaldun askorentzat tratamendu honek duen lurraldetasun-esparru meharra azpimarkatu behar genuke. Horrela, batzuentzat, hitanoa betidanik, txikitatik ezagututako auzoko lagunaren esparrura dago murriztua, hortik kanpora zuka erabiltzen dutelarik.

Zortzigarren aldagaiari, TALDE-KIDETASUNARI dagokionez, ez dirudi euskaraz hain garrantzitsua denik. Dena dela, erabilera batzuk azaltzeko lagungarria izan daiteke. Har dezagun gorago aipatutako mendizalearen adibidea. Hor agian taldekidetasuna eragilea izan daiteke hitanoaren erabileran. Menden topatzen diren bi mendizalek, guztiz ezezagunak izanda ere, zerbait garrantzitsu konpartitzen dute, mendizaletasuna. Horretxek elkartzen ditu,

13. Markina aldeko tratamenduen egoera soziolinguistikoaz Alberdi, 1986b ikus daiteke.

kidetasun horretxek batzen ditu eta hortik letorke hitanoa erabiltzeko probabilitate handiagoa. Oro har, nonnahiko kidetasunak eta elkar-lanak —dela auzoan, dela politika arloan, dela erlijioan— hitanoa erabiltzera bultzatzen dutela pentsa liteke.

AGINPIDEA dela eta, lehenik familiaren eremuan ageri dela azpimarkatu behar da. Seme-alabak, Euskal Herriko txoko bat edo beste kenduta, ez dira sekula hika aritzen beren gurasoekin, harreman asimetrikoa nagusitzen delarik. Ez gurasoekin, ezta gainontzeko senide nagusiagoekin ere (aitona-amonak, izeba-osabak...). Aginpidea nagusitzen deneko beste eremu bat, lanekoa izan daiteke, nagusiekin noski. Lantokiko nagusiarekiko harremana ehuneko laurogeian zuka gauzatuko da. Hala ere, oraingoan, aurrekoan ez bezala, zuka simetrikoa dugu maizenik.

ELKARTASUN psikologikoa, Friedrich-ek “sinpatia/antipatia” zentzuan ulertzen eta aurkezten digu. Ez guke esango aldagai honek bere garrantzia ez duenik. Izan ere, euskaldun askorentzat hitanoa zer bait baldin bada, konfiantzazko harremanaren seinalea edo da. Zentzu horretan hitanoa lagunarteko erregistroa dela esaten da. Baina lehengora bihurtuz, batetik ohartarazi behar dugu adiskidetasuna ez dela ezinbesteko baldintza hika hitzegiteko. Bi lankide, esate baterako, adiskideak edo lagun minak ez izan arren, erraz aritzen dira hika elkarrekin. Bestetik, esan behar da adiskidetasuna egotea ez dela aski hika mintzatzeko. Izan ere, honetan ohiturak ikaragarriko garrantzia du eta sarritan “harremana nola hasi, hala segi” izan ohi da legea ¹⁴, benetako adiskide bati zuka eta hain adiskide edo hain konfiantzazkoa ez denari hika egiten zaiolarik. Beraz, Rudolf P.G. de Rijk-ek erakutsi duenez ¹⁵, (familiako, auzoko, herriko, laneko...) KIDETASUNAK elkartasun psikologikoak baino munta gehiago izaten du askotan.

Esanak esan, psikologiak badu bere garrantzia tratamenduen erabilerari begira. Adibidez, haserrealdian aiseago hausten du euskaldunak bere ohizko ohitura edo araua tratamenduarekiko. Horrela, bere semea zuka tratatzen duen ama batek, haserratutakoan, hika egin liezaioke eta alderantziz, semea-ri to esaten dion ama batek haserretzean zuka egin liezaioke urruntze psikologikoa adierazteko. Horrelakoetan tratamendu-hausturak hurbiltasun psikologikoaren haustura adierazi ohi du.

14. Tratamenduak euskaraz —agian aldameneko erdaretan baino areago— ohiturazko izaera du, esan nahi baita ohiturak pisu ikaragarri handia duela. Urdiaingo bi senar-emazte, gaztetako lagunak eta elkarrekin betidanik hiketan ohituak, elkarrekin zuka aritzeko zuten ohiturazko “zailtasunagatik” erdaraz hasi omen ziren. Hainbestearino hel daiteke ohituraren poderioz, ohiturfaltaren poderioz Urdiaingoen kasu xeble honetan.

15. Argitara eman aurretik helarazi zidan artikulua guztiz argigarrian honela mintzo zaigu R. de Rijk: “The other dimension introduced by Brown and Gilman, «Solidarity», will serve very nicely to elucidate the symmetrical use of the pronoun *bi*, on the understanding, however, that its definition be tailored to the Basque cultural situation. Here solidarity must be conceived of as an objective social reality: psychological factors play very little part in it. In particular, friendship, no matter whether close or not, is neither a necessary nor a sufficient condition for the use of mutual *bi*. The kind of solidarity that is relevant consists, above all, in being subject to similar living conditions: children raised in the same family, hamlet or neighbourhood, workers on the same farm or in the same factory, and so on.” (Rijk, 1992).

Aitortu beharra daukat zorretan nagoela R. de Rijk-ekin, nire hau burutzeko guztiz lagungarri eta argigarri gertatu baitzait beraren artikulua. Bihoazkio hemendik nire eskerrik beroen eta zintzoenak.

Bestalde, aipatutakoez gain, pertsonaren izakerak eta itxurak ere izan dezakete eragina tratamendua hautatzerakoan. Jende serio samarrari hobeto dohakio zukako tratamendua, jende txistoso, xelebre eta barregarriari baino eta horrela lehengo ezaugarri itzuli gara: badirudi hitanoa ezin hobeto dohakiela jaigiroari eta tonu umoretsu eta pipermindunari. Gauzak horrela, Lafitte-k aspaldi oharterazi zuenez (Lafitte, 1977), ez litzateke harritzekoa gurasoek seme lotsati, isil eta barnekoari (entterka) zu esatea eta jendarte-koari (koska) to esatea. Ildo beretik, baina itxurari edo fisikoari helduz orain, badirudi mutiko mozolo, azkar eta okerrari hobeto dohakiola hitanoa, mutil erkin eta ahulari baino, esan liteke azken honek ez duela "hitanoa soportatzeko adinako sendotasunik". Dena dela, hauek guztiok kasu marka-tuak dira, erabilera ezohizko eta markatuari dagozkionak, alegia.

Agian baliteke euskaraz aipatu hamar aldagai hauetaz gain gehiago iza-tea ¹⁶, baina edozein modutan ere, garrantzitsuenak hemen azaldutakoak iruditzen zaizkigu. Bukatzeko esan dezagun ez dutela denek garrantzi berdi-na erabilera ohizko eta markatu gabeen. Haietatik batzuk aukeratzekotan, ADINA/BELAUNALDIA, SEXUA, KIDETASUNA eta ELKARTASUN PSIKOLOGI-KOA azpimarkatuko genituzke. Aldagai soziolinguistiko garrantzitsuenak age-rian jarri ondoren, agian mereziko luke gogoraztea diruak eta aberastasunak berez ez daukatela aparteko eraginik tratamendu-hautaketan.

4. Hitanoaren erabilera zenbait esparrutan: senidetazueko harremanak, lagunartea, e.a.

Familiaren esparruan bada inguruko hizkuntzen ikuspegitik txit berezia den harreman bat, senar-emazteen artekoa, hain zuzen ere. Inguruko hizkun-tza gehienetan ez bezala, usuarioaren arabera euskaraz ezkontza mugarri bat da tratamenduari dagokionez. Adiskidetasunezko harremana duten bi neska-mutil, ezkongai bihurtuko balira, agian elkarrekiko hikatik elkarrekiko zuka-ra joko lukete elkar tratatzerakoan. Tratamendu-aldaketa hau ezkongaietan gertatu ezean, ezkondu eta gero gertatuko da ia-ia ziurtasun osoz ¹⁷. Beste hizkuntza batzuetan bidea alderantzizkoa izaten da, ezkontzak elkarrekiko T-ri hasiera ematen diolarik.

Guraso eta seme-alaben arteko harremanei buruz gorago esandakoa go-goratu behar dugu, alegia, salbuespenak salbuespen, seme-alabak ez dira zuka aritzen gurasoein, ezta orokorrean senide eta ahaide nagusiekin. Alde-rantziz, ordea, bai. Zenbait tokitan sexuak eragiten dituen salbuespenez, gurasoek beren semealabei hika egitea gauza normala da. Hala ere, hemen bada berezitasun bat, psikolinguistek edo etnolinguistek azaldu beharko liguketena: Euskal Herriko toki anitzetan haur txikiari zuka mintzatzen zaio, harik eta adin batera heldu arte, koskortu arte, alegia. Haurra gaiztakerietan

16. Gu geu, euskararen kasurako "baserritar/kaletar" jatorria ausartuko ginatete propo-satzera aldagai soziolinguistikotzat. Esan beharrik ez dago baserri-giroan edo baserri-girokoen artean inon baino hobeto eta biziago atxikitzen dela hikako tratamendua.

17. Aldaketa honen alde antzinako lekukotasunak ditugu: XVI. mendeko ezkontzako aginduak, hain zuzen (honetaz, ikus Satrustegi, 1977 eta Fagoaga, 1961).

Bestalde, honetan ere, badira salbuespenak. Zenbait eskualdetan ez da gauza harrigarria emazteak senarrari to esatea eta batzutan are elkarri ere hi esatea.

edo okerkerietan hasten denean, gizontzen hasten denean... orduantxe aldatzen dute gurasoek tratamendua. Toki batetik bestera, gorabehera handiak badaude ere, sei-zortzihamar urteren bueltan hasten zaio haurrari hika egiten.

Badirudi aitona-amonek beren bilobei, gurasoek bere seme-alabei baino maiztasun apalagoz hitz egiten dietela hika. Izeba-osabekin ere berdintsu gertatzen bide da. Hortaz, senidetasunezko harremana zenbat eta urrunago-koa izan, hainbat eta gutxiago hika. Orobat, senide batekin zenbat eta harreman gutxiago, orduan eta nekezago hitanoa.

Neba-arreben artean ere, sexuak aparteko trabarik jartzen ez duen lekue-tan, hika aritzea da ohizkoena, baldin eta adin berdintsukoak badira. Herri askotan, hala ere, sexua edo adina dela medio, asimetria harrigarriak gertatzen dira: arrebak nebari hika, baina nebak arrebari zuka; anaia nagusiak gazteagoari hika eta azken honek zuka berari; alderantziz ere bai, anaia nagusiak zuka txikiari eta txikiak nagusiari hika...

Adin beretsuko lehengusu-lehengusinen artean ere, bestelako trabarik ez bada, hitanoa da ohizkoena. Hala ere, tartean adina, sexua eta harremanaren maiztasuna sartzen dira. Aski normala da, esate baterako, herriko lehengusuekin hika aritzea eta kanpokoekin zuka aritzea. Koinatu-koinaten artean ere, berdintsu gertatzen da eta ber adinekoak izanez gero, hitanoa nagusitzen da.

Aitagin-amaginarrebak suhi eta errainarekin hika mintzatzeko probabilitatea jaitsi egiten da, odolezko senideekin alderatuz gero. Bestalde, oso nekeza da (ezinezkoa ez esatearren) suhiak eta errainak amagin-aitaginarrebari hika egitea.

Beste kontu jakingarri bat bakarrizketarena dugu. Izan ere, teorien hita-noaren edo *T*-ren probabilitaterik handiena nork bere buruari hitz egitera-koan eta anaia bikien artean gertatzen omen da. Gainera, Lafonek eta Mitxelenak erakutsi duten bezala, emakumezkoen barne-bakarrizketan toka nagusitzen da eta ez noka. Hots, itxura guztien arabera, hikako bi generoen arteko aurkakotasunean, noka da buru markatua (edo markaduna) eta toka markatu gabea (edo markagabea). Honetaz, Iñaki Seguiolari (1992) eskertu behar diogu duela gutxi egin berri duen ohar argigarria: emakumeak bere buruari zuzentzentzerakoan nahitaez noka mintzatu beharra du, bera, emakumea, ekintzako "aktantea" den neurrian eta "*bik esan ditun esatekoak*" tankerakoak erabili behar ditu baitezpada; besterik da (bere buruarekin) alegiazko elkarrizketa dirudien barne-hizketan ari denean baina inori bereziki zuzendu gabe (ezta bere buruari ere) eta bera "aktantea" izan gabe, orduan toka ariko da eta "*mamalatu egin nok*" bezalakoak jalgiko ditu bere pentsamenduak, hots, mintzalagun jakinik eduki ezean alokutibotasunak eskatzen duen komunztadura tokakoa izango da.

Animaliekin ere gauza bera gertatzen da. Oro har, hikako forma markatu gabea nagusitzen da, animalia harra ala emea izan dadin ¹⁸.

Hikako tratamendua biren arteko kontua izan behar duelako ustearen aurka, lagunarteko giroan (den-denak adiskideak baldin badira, behintzat) aski normala da mintzalagun askori ere hika zuzentzea. Edozein modutan

18. Dena den, hemen denetarik aurkitzen da. Ez da falta gizarteko arauak animalien mundura ere hedatzen dituenik, animaliei toka, noka, xuka edo zuka (alokutiboak) egiten zaielarik.

ere, tentu handiz ibili beharra dago jende aurrean hitz egiterakoan egoera arraro edo gatazkatsuak¹⁹ gerta ez daitezen.

Gaur egungo usuarioaren arabera, hika/zuka tratamenduen aurrean ez dugu zalantzarik bat ere bigarrenaren markagabetasunaz edo neutraltasunaz. Esan nahi baita —gaurko eta hemengo gaztelaniaz ez bezala eta agian frantsesez bestaldera— zalantzarik izanez gero, beti asmatuko dugula zuka erabiliz. Errealitate (sozio)linguistikoa honek ere hitanoaren hedakuntzaren aurka jokatzeko du, ezbaiaren kasuan zuka jotzen baita. Gauzak horrela, gizarteko harreman gehienetan elkarrekiko zuka ateratzen da garaile euskaraz. Eta seguru asko, euskararena aldameneko erdaren usuarioekin alderatuko lukeen ikerketa enpiriko batek agerian jarriko luke baieztapen hori²⁰.

Bukatzeko esan dezagun usario eta ideologiaren arteko borroka hasita dagoela. Usarioak aldagaitz diren heinean “lege” dira, baina edozein modutan ere, ez dira lege aldaezinak eta agian gure artean ez da faltako euskal gizarteko tratamendu-ohiturak, handik eta hemendik, egun gailentzen ari den ideologiaren pleguetara egokitzearen aldeko borrokalari sutsurik²¹.

AIPAMEN BIBLIOGRAFIKOAK

- ALBERDI, J. (1986a), “Euskarazko tratamenduen ikuspegia: I. Historia apur bat”, *ASJU*, XX-1, 149-202.
- — (1986b), “Alokutibotasuna eta tratamenduak euskaraz: II. Markinaldeko kasua”, *ASJU*, XX-2, 419-486.
- BROWN, R. and GILMAN, A. (1960), “The pronouns of power and solidarity” in T. A. SEBEEK (1960), *Style in Language*, Cambridge, Mass., MIT Press. Baita in P.P. GIGLIOLI (1972), *Language and Social Context*, Penguin Books.
- BROWN and FORD, M. (1961), “Address in American English” in *Journal of Abnormal and Social Psychology*, 62, 2, 375-385.
- BYRNE, SISTER ST G. (1936), *Shakespeare's use of the pronoun of address*, dissertation (tesi argitaragabea), Catholic University of America, Washington.
- CHATELAIN, E. (1880), “Du pluriel de respect en Latin”, *Revue de Philologie*, vol. 4, 129-139.
- DE RIJK, R.P.G. (1992), “Familiarity or Solidarity: The Pronoun *Hi* in Basque”, *RIEV*, 1991-2 (Año 39), XXXVI, 373-378.

19. Maiz ikusten ditugu horrelakoak Espainiako komunikabideetan (bai telebistan, bai irratian eta abarretan) mahai-inguruetan batipat: “etxe barnean” ezarritako arauak edo kodeak jende ororekin (gaztea edo zaharra izan dadin,...) hoztasun handiko *V* erabiltzera behartzen du kazetari aurkezlea; beste alde batetik, gonbidatuek edo elkarriketatuek, artifizialkeriatik aldentzearen, sarritan *T* erabiltzeko lizentzia hartzen dute nolabaiteko egoera gatazkatsu edo delikatuak sortuz. Horrelakoetan, denetarik ikus eta entzun dezakegu: batzuk hika, beste batzuk zuka, beste batzuen artean tratamendu asimetrikoa... ETBn ere, ez dira falta horrelako egoerak.

20. Ausartak izanik, *gaztelaniazko T > frantsesezko T > euskarazko T* mailaketa ezarriko genuke elkarrekiko *T*-ren maiztasunari dagokionez. Bistan geratzen da itxurazko baliokidetza batzuen desegokitasuna, euskarazko *T* eta gainerakoak ez baitira guztiz baliokideak. Larra-mendik oharterazi zuenez, euskarazko *V*, gaztelarazko *T* eta *V* tratamenduen tarteko erregistroa da, haietako bakoitzaren eremutik zerbait bereganatzen duelako.

21. Joxerra Garziak honelako hitzez ematen dio bukaera bere zutabetxoari (Garzia, 1991): *Guretzat zaharrak diren usadioak noizpait sortuak izango dira, orduko zaharren kaltetan. Nork hitz egiten dio gaur egun berorika aitari? Harreman berriek ez ote dute hizketan ere beren islada behar? Usadioaren morroi izan behar ote dugu beti, hitzez-bitz harturik? Tristeia litzateke usadio berriak sortzeko gaitasuna betirako galdu dugula aitortu behar izatea.*

- FAGOAGA, B. (1961), "Algunas frases inéditas del euskera antiguo", *Euskera*, 6, 27-29.
- FRIEDRICH, P. (1966), "Structural Implications of Russian Pronominal Usage" in W.O. BRIGHT (1966), *Sociolinguistics*, The Hague-Paris, Mouton, 214-259.
- GARZIA, J. (1992), "Usarioarekin borrokan", *Euskaldunon Egunkaria*, 1991-9-13, 2. orr.
- GEREÑO, X. (1992), "Hitanoa", *El Mundo del País Vasco*, 24-9-1991.
- LAFITTE, P. (1977), "Koska eta entterka Heletan", *Euskera*, 22, 138-139.
- MICHELENA, L. (1976), *Fonética Histórica Vasca*², Gipuzkoako Diputazioa, Donostia.
- SATRUSTEGI, J.M.^a (1977), "Promesa matrimonial del año 1547 en euskera de Uterga", *FLV*, 9, 109-114.
- SEGUROLA, I. (1992), "Gizon, gizarte, gizagaixo" *Euskaldunon Egunkaria*, 1992-430, 26.orr.
- TXILLARDEGI (1977), *Oinarri Bila*, Donostia.
- Gai honi buruzko bibliografia gehiagorako ikus Alberdi, 1986a: 198-202. orr.

LABURPENA

Artikulu honetan egilea, R. Brown eta A. Gilman (1961) ikerlari estatubatuarren diakroniazko eredua erreferentziazat harturik, hitanoaren gaur egungo erabileraz eta geroaz mintzo da lehendabizi. Ikerlari amerikarrek mendealdeko zenbait hizkuntzarentzat plazaratu zituzten diakroniazko bi hipotesietatik lehenak, hots, tratamenduen erabileran XX. menderako simetriaranzko joera iragartzen duen hipotesiak, ero har, euskararentzat ere balio dezakeela ematen du. Hitanoaren zabalkuntza eta orokortzea postulatzten duen bigarren hipotesi diakronikoa, ordea, ez dirudi bat ere gertagarria euskararen kasuan. Ondoren, hitanoaren (tratamenduen) erabilera gobernatzen duten aldagai psiko-soziolinguistikoa (adina, sexua, kideetasuna eta adiskideetasuna, bereziki) aztertzen dira eta azkenean, labur-labur hikako edo zukako ohitura berezi batzuen —besteak beste, bakarriketako eta senar-emazteen arteko usarioen— berri ematen da.

RESUMEN

En este artículo el autor trata en primer lugar sobre el uso actual y el futuro del tratamiento familiar (tuteo) en euskara, todo ello dentro del marco de análisis diacrónico fijado por R. Brown y A. Gilman (1961). De las dos hipótesis diacrónicas postuladas por los citados autores norteamericanos, tan sólo la primera, que hace referencia a la tendencia hacia el tratamiento simétrico en el siglo XX, parece cumplirse en líneas generales en el euskara actual. Por lo que a la segunda hipótesis respecta, no parece en modo alguno verosímil la tendencia a la universalización del tuteo en euskara.

A continuación, se analizan algunas de las variables psicosociolingüísticas que inciden en el uso y en la elección del tratamiento (se subrayan especialmente la edad, el sexo, la relación y la amistad) en euskara. Finalmente, se da cuenta de ciertos usos específicos (monólogo interior, relación entre marido-mujer, etc.) arraigados en la comunidad vascoparlante relacionados con el tuteo y el usteo.

RÉSUMÉ

Dans cet article l'auteur traite dans un premier temps de l'utilisation actuelle et future du traitement familial (le tutoiement) en basque, ceci à partir du

cadre des analyses diachroniques arrêtées par R. Brown et A. Gilman (1961). Des deux hypothèses diachroniques postulées par les auteurs nord-américains cités, la première, fait référence à la tendance du traitement symétrique du 20ème siècle et semble respecter généralement le basque actuel. Bien que dans la seconde hypothèse ce soit respecté, il ne semble pas que la tendance à l'universalisation du tutoiement en basque soit vraisemblable. En plus, on analyse certaines des différentes psycho-sociolinguistiques qui influent sur l'utilisation et sur le choix du traitement (on souligne particulièrement l'âge, le sexe, la relation et l'amitié) en basque. Finalement, on se rend compte de certaines utilisations spécifiques (monologue intérieur, relation entre mari-femme, etc.) enracinées dans la communauté basqueparlé en relation avec le tutoiement et le vouvoiement.

SUMMARY

In this article the author deals first with the present use and the future of the familiar treatment (*tuteo*)²² in the Basque language, all of that within the frame of the diachronic analysis postulated by R. Brown and A. Gilman (1961). Of the two diachronic hypothesis postulated by the mentioned North American authors, only the first one, referred to the tendency towards the symmetrical treatment in the 20th. century, seems to be fulfilled in broad outline in the present Basque language. Regarding the second hypothesis, it does not seem credible at all the tendency to the universalization of the "tuteo" in the Basque language.

Next, the author analyzes some of the psicosociolinguistic variables that affect the use and the election of the treatment (age, sex, relationship and friendship are specially remarked) in the Basque language. Finally, the author notices certain specific uses (interior monologue, relationship between husband-wife, etc.) established in the Basque speaking community connected with the "tuteo" and the "usteo"²³.

22. Addressing a person as "tu", familiar usage.

23. Addressing a person as "Usted", formal address.